

Kongregazionea Behorlegin (1930-1950)

E.: zure gaztetasunaz, Jeanne, nolako orroitzapena duzu? Pixka at karrika ortan ta ibiltzen zinen zu haur edo gazte zinelaik, berdin?

J.: ba, gaztiak oro, bezperetaik landa, ibiltzen ginen eskolako aitzinian, ta hara, josteta artzen ginen an, à la marrelle eta au coucou ta holako gauza orietaik, bena ilun-zeiñetako bear zen etxeat jin, ori re erraiten gindakon amatxi hari, amatxi erraiten baiginien, ostatuko emazte ua zen, erriko serora erten gindien, hak joiten zitien eguerdiak eta ilun-zeiñak eta gakotzen zen eliza, e, beti, meza aintzinian e oren bat leheno joiten zen... Deia erraiten gindien, hooi bat zeñu joiten zuten, gero joiten zien laurden bat leheno, hiru dangak erten gindien, serorak bear zien jin e, haat, gero, bultta aten burian, bi danga joiten zien berriz, eta meza hastian, danda bakarra, erraiten gindien guk ola, danda bakarrian hasten zen meza.

E.: kongregazionia ezagutu uzu?

J.: ba, untsa, ezagutu. Ordian, hilaitian... Guziz joaiten ginen koosatzea ta kominiatzea, kongregazionian ginenak, leenbiziko igandia, hilaiteko leenbiziko igandia, eta mantelina xuria ezartzen gindien, eta medalla at bagindien, xingola blu batekin, hara, geo, gerla denboran eta, denak kongregazionian ginen, ez baitzen niun e bestaik eta iten. Bestak hasi zienian, ez zen jantzan ari izan bear kongregazionian egoiteko, bena, leenik zonbait eta azkenekotz denak, jantzan hasi zien, ta kongregazionia finitu.

E.: ze adinetan sartzen zen kongregazionian?

J.: komunietik landa, segidan. Ori zuxun bakarrik, mantelina xuria ilaiteko leen igandian eta koosatzea ta kominiatzea joaitia.

E.: ta ez dantzatzea.

J.: ta ba, ara.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala